

BALIO-PROPOSAMENA

Hasteko, makina batek gimnasioan jarraitu behar duzun rutina adieraztea ideia berritzailea da, eta horrek bezeroak erakartzen ditu, jende askok gimnasia joaterakoan ez dakielako nondik hasi haien helburuak lortzeko. Beraz, hori **bezeroentzat laguntza handia** da. Gainera, **lesioak prebenitzen** ditu, ariketa bakoitza bere **azalpenarekin** datorrelako; horrela, bezeroak ez du minik hartuko ariketa bat gaizki egiterakoan.

Horrez gain, gure **aplikazioaren premium zerbitzua** ordaintzen duten bezeroek **menu** pertsonalizatuak jasoko dituzte, euren behar eta helburuen arabera **egokituak**, entrenamendu-prozesua are eraginkorragoa izan dadin.

Gainera, bezeroek **aplikazioan jarduerak** eta **erronkak** partekatzeko aukerak dituzte, horrek beste bezero batzuentzat laguntza handia izan daiteke, izan ere, haien rutina hobetzeko, ikasteko, ideia gehiago edukitzeko...

Bestalde, gimnasioan **venting makinak** ditugu. Hauek eskuohialak, edari eta elikagai aproposak eskaintzen dituzte

Laburbilduz, gure gimnasioak beste gimnasioek ez duten **zerbitzuak eskaintzen** ditu, eta bezeroen ongizatea zein babesa bermatzen du.



